

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Alkate-lehendakariaren eginkizunak lehenengo alkateordearen esku uztea

«2026/394 Dekretua. Nik, Javier Gallego Rodríguez Erriberagoitiko Udaleko alkate-lehendakariak, bat etorri apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 23. artikuluan xedatutakoarekin, honako hau ebazten dut, alkatea 2026ko irailaren 27tik 29ra kanpoan den bitartean ordeztua izateko xedez:

1. Alkatetzaren eginkizun guztiak Ana Belén Montoya Olano lehenengo alkateordearen esku uztea, alkatea ez dagoelako, 2026ko uztailaren 27tik 29ra bitartean, biak barne, hargatik eragotzi gabe eginkizunak berriz hartzea alde aurretik lanera itzultzen bada.

2. Horren berri ematea Udalbatzari egiten den lehenengo ohiko bilkuran.

Honako hau argitaratzen da, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide juridikoaren Arautegiaren 44.2 artikuluan xedatutakoaren arabera”.

Pobes, 2026ko uztailaren 24a

Alkate-lehendakaria

JAVIER GALLEGO RODRÍGUEZ